

## EAEko IRAKASLEAK

### **EPE 2022. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA**

Izena eman duten partaideen artean, onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratu da Hezigunean, norberaren eremu pertsonalean.

Erreklamazioak aurkezteko epea: **uztailaren 19tik abuztuaren 3ra** arte.

- [Egonkortzeko lehiaketa-oposizioa](#).
- [Ohiko lehiaketa-oposizioa](#).

### **EPE 2022. MEREZIMENDU-LEHIAKETA**

Administrazioak jakinarazi digu uztailaren amaieran hautatuen zerrenda berriz argitaratzeko asmoa duela, egon diren uko egiteak eta baldintzak ez betetzeagatik kanporatuak izan diren partaideen lekuan, itxaron zerrendatik sartu direnak izendatzeko.

### **IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA/COCU)**

Partaide guztien behin betiko zerrendak argitaratu dira.

Ikasturte hasierako baimen edo lizentzien berri, ikastetxeko zuzendariei jakinarazi behar zaie. Horrez gain, **lizentziak eta baimenak eskatzeko EIZU erabilgarri egongo da uztailaren 26tik aurrera**, behin datorren ikasturteko plaza guztiak pertsona bakoitzaren perfilean kargatuta daudenean.

### **EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK**

#### **EIZU**

Gogoratu dagoeneko **EIZU etxetik** ere erabilgarri dagoela.

Zuzendaritza taldeko zein ikastetxeko irakasle eta ez-irakasleek eskuragarri dute. Ondorengo estekan sartu eta identifikazio elektronikorako bitartekoak erabili behar dira. **EIZU etxetik** (eizu.app.jakina.euskadi.eus).

**ADMINISTRAZIOAN  
ARRETA ZUZENA BERRESKURATU!!!**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)